



LANA EZ ORDAINTZEARI ETA LANEKO BALDINTZEI BURUZKO OHARRA

Duela gutxi, polemika piztu da Malpaso argitaratze-taldeak argitaratze-sektoreko hornitzaile askori, bereziki itzultzaileei eta zuzentzaileei, lana agindu eta ez ordaintzeagatik. Horrek hedabideetara ekarri du berriro itzultzaile, interprete eta zuzentzaileen lan-egoera latza. Batetik, aurre egin behar diote enpresa kontratatzaile batzuek lan-baldintzak ez betetzeko arriskuari; eta, bestetik, egoera ahulean daude, gehienak autonomoak direlako, eta lanaren ordainketa ez jasotzea, zenbatekoa zein den alde batera utzita, arazo larria delako.

[Red Vértice](#)k, Espainiako estatuan egoitza duten itzultzaile, interprete eta zuzentzaileen elkarte nagusiak biltzen dituen kolektiboak, hauxe adierazi nahi du tamalez ohikoa den egoera horri buruz:

- Red Vértice sarean **elkartasun osoa adierazi nahi diegu** Malpaso argitaratze-taldeak **ordaindu ez dien langile guztiei**, noizbait antzeko gatazka batean egon direnei edo gaur egun horrelako egoera batean daudenei. Lanbide bereko kideok beste inork baino hobeto ulertzen dugu zergatik den hain larria lan baten ordainketa ez jasotzea.
- Gainera, zerbitzu profesionalak kontratatzen dituzten enpresei gogorarazten diegu 15/2010 Legean, 4/2013 Errege Lege Dekretuan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011/7/EB Direktiban **30 eguneko epe lehenetsia** ezarrita dagoela **fakturak ordaintzeko** (eta gehienez ere 60 eguneko epea, ezohiko inguruabarrak gertatzen direnean). Horren harira, Red Vértice sareak bereziki azpimarratu nahi du langile autonomo gehienok **sortzapen-irizpideari** jarraitzen diogula, Zerga Administrazioako Estatu Agentzian BEZa eta PFEZa ordaintzen ditugula, eta zergak ez ditugula lanaren kobrantza-egunaren arabera ordaintzen, baizik eta faktura egiteko egunaren arabera. Hori dela eta, lana egin eta zergak ordaindu eta gero lanaren ordainketa jasotzen ez dugunean, likidazio-arazo larria izaten dugu.
- Azkenik, Red Vértice sareak aukera baliatu nahi du, sareko kide diren **6.000 profesionalen** izenean, lanbideen duintasuna aldarrikatzeko. Zehazki, honako baldintza hauek ezinbestekotzat jotzen ditugu: ordainsariak lanaren benetako kostuaren, lana behar bezala egiteko ezagutzen kostuaren eta bizitzaren kostuaren arabera izatea; lana ondo egiteko baldintza egokiak izatea; lana entregatzeko epeak zentzuzkoak izatea eta laneko arriskuen prebentzio-araudia betetzea.

Gizartean oihartzun handia sortu zen argialetxe zordunak iragarri zuenean hornitzaileen lana garaiz ordaindu beharrean zenbait hilabeteren buruan ordainduko zuela; hortaz, agerikoa da elkartegintza garrantzitsua dela, lanbidearen duintasuna eta osotasuna defendatzeko tresna baita (bide batez, Red Vértice adi egongo da ordaintzeko konpromisoa betetzen duten jakiteko). Horrelako kasu guztietan, beti zainduko ditugu kolektiboko elkarte guztietako kideen interesak.

Red Vértice sareari buruz

[Red Vértice](#) sarean, Espainiako estatuko itzultzaile, interprete eta zuzentzaileen **hemeretzi elkarte** daude. Helburu nagusiak, besteak beste, profesional guztien ekintzak koordinatzea, administrazio publikoetan profesionalen ordezkari gisa jardutea, lan-baldintzak hobetzen laguntzea, eta bezeroentzako eta, oro har, herritarrentzako lanaren kalitatea bermatzea dira.



AATI: Asociación Argentina de Traductores e Intérpretes
ACEC: Associació Col·legial d'Escriptors de Catalunya
ACEtt: Sección autónoma de la Asociación Colegial de Escritores de España
AGPTI: Asociación Galega de Profesionais da Tradución e a Interpretación
AICE: Asociación de Intérpretes de Conferencia de España
APTIC: Associació Professional de Traductors i Intèrprets de Catalunya
APTIJ: Asociación Profesional de Traductores e Intérpretes Judiciales y Jurados
ASATI: Asociación Aragonesa de Traductores e Intérpretes
Asetrad: Asociación Española de Traductores, Correctores e Intérpretes
ATIJC: Associació de Traductors i Intèrprets Jurats de Catalunya

ATRAE: Asociación de Traducción y Adaptación Audiovisual de España
AVIC: Asociación Valenciana de Intérpretes de Conferencia
EIZIE: Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretteen Elkarte
EspAIIC: Asociación de los miembros de la AIIC en España (Asociación Internacional de Intérpretes de Conferencias)
FILSE: Federación Española de Intérpretes de Lengua de Signos y Guías-Intérpretes
IAPTI: International Association of Professional Translators and Interpreters
Tremédica: Asociación Internacional de Traductores y Redactores de Medicina y Ciencias Afines
UniCo: Unión de Correctores
Xarxa: Red de Traductores e Intérpretes de la Comunidad Valenciana